

## EZ DA MUSIK.

—Aita bekar dirua.  
 —¿Zér esandek mutill?  
 ¿Iurrian ageri ez ta  
 diru naian abill?  
 Ez dakit nik zer diran  
 gaurko gazte abek;  
 aunditzen aizenian  
 dirua izango dek.

. . . . .

—Aita bekar dirua.  
 —¡A zér arrazoya!  
 dirua irabazteko  
 badaukak sasoya.



## ZIRI BATI, BESTIA.

Denda baten leyua  
 ikusirik utsik  
 galdetu zuben Kosmek  
 barrena sarturik:  
 —¿Emen zér saltzen dute?—  
 ta jabe zoruak  
 eranzun ziyon ari:  
 —¿Zér? asto buruak.  
 —Asko saldu dirala  
 (diyo Košmek) nago  
 zergatikan zuria  
 bakarrikan dago.

MARCELINO SOROA.